

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2013ko MAIATZAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko maiatzaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea eta Jon Tejeria Otermin


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2013ko apirilaren 11an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2013 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaeren azterketa, hala bada.**
- 4. 2012 ekitaldiko kontu orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
- 5. Tolosaldeko Landa garapen elkarteari, hau da, TOLOMENDI-ri 2013 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko Mankomunitateari, 2013 urteko urtarriletik-ekainera egingo duen hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik diru ekarpena burutzea, hala bada.**
- 7. Katilu txulo Kultur elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Sorozelai 43 eskuineko etxebizitzaren fatxada txukundu eta kanpoko tximinia konpontzeko obra baimena eskaera, J.U.E.**
- 9. Fakturak eta ordainketak.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2013 urteko apirilaren 11ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2013 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 23koa, 2013ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

07/2013 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 7koa, A.G.F. jaunari Larraulgo Udaleko biztanleen erroldan baja ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2013 URTERAKO URA ETA ZABOR TASEN HOBARI ESKAEREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2013 urterako ur eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko 2013ko urtarrilaren 24tik otsailaren 15arte epea ireki zela, eskaera bakarra egon direlarik, konkretuki C.G andrearena.

Ikusirik 2013ko apirilaren 18an Gizarte Langileak eginiko txostenean dioena.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: C.G. andreak eginiko 2013 urterako ura eta zabor tasetan hobari eskaera ukatu, gizarte langileak bere txostenean jasotzen dituen arrazoiak kontutan harturik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2012 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2012 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzan.

Ikusirik 2013ko apirilaren 17an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2013ko apirilaren 18tik maiatzaren 6a bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorri Larraulgo Udaleko 2012 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onspena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEARI, HAU DA, TOLOMENDI-ri 2013 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2013ko apirilaren 26an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2013. Urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalarik 1.949,21 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.


Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.949,21 eurotako ekarpena burutzea 2013 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2013 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA

**TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI, 2013 URTEKO URTARRILETIK-
EKAINERA EGINGO DUEN HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA
ZERBITZUAGATIK DIRU EKARPEN BURUTZEA, HALA BADA**

Une honetan, arratsaldeko 19.45 orduetan, Imanol Aranzabal zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura, 2013ko martxoaren 20koa, 2013 ekitaldirako hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik, urtarriletik ekainera bitartean izango dena, Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko faktura ordainketa burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 8.896,63 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateari, 2013/035 fakturaren ordainketa burutzea, hau da, 8.896,63 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 8.896,63 eurotako gastua onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA


**KATILUTXULO KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN
AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Katilu Txulo Kultur Elkartek aurkezturiko idatzia, non ondorengoa dioen:

“Udalbatzako kide agurgarriak:

Katilutxulo elkarteko juntakide berriak, elkarteko estatutuak errebisatzen ari gara. Hori dela eta, beste atal batzuen artean, bada bat, zalantzak sortzen dizkiguna: Katilutxulon bazkide izateko baldintzak.

Idatzi honen bidez, Larraulgo Udalak eta Katilutxulo elkarteak 2010eko abenduaren 2an, udaletxearena den lokala erabiltzeko baimena sinatu/berritu zuten kontratuaren zuzenketa txiki bat eskatu nahi dizuegu. Funtsean, dokumentu horren Baimenaren baldintza partikularrak ataleko 4. Puntua berridaztea eskatu nahi dizuegu. “Herritar” kontzeptuaren inguruan argibideak ematea hain zuzen ere. Horretarako, erantsita luzatzen zaizkizuen hiru dokumentuak (estatutu berriak/ elkarteko barne raudia/ udaletxearekin sinatutako lokala erabiltzeko azken baimena) aztertu beharko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

dira. Era berean, elkarteko bazkidea izateko zeinek finkatzen dituen baldintza horiek jakin nahiko genuke. Hau da, udalak ala bazkideek duten azken erabakia.

Esandakoaren arabera, Katilutxulo elkarteko juntako bazkideen izenean, aipatutako dokumentu horren 4. Puntuko zehaztapenak lehenbailehen ematea eskatu nahi dizuegu.

Besterik gabe, zuen erantzunaren zain gelditzen gara. Aldez aurretik, mila esker eta laster arte!”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Katilutxulo Elkarteari ondorengoa jakinaraztea:

- Herritar kontzeptua, “Herrian erroldatuta dagoen pertsona”-rena dela.
- Udalak finkatzen dituela Elkarteko bazkidea izateko baldintzak.

BIGARRENA: Katilutxulo Elkarteari jakinarazi, 2010urtean Larraulgo Udalarekin sinatutako akordioa berrikusi nahi bada, Katilutxulo Elkartek, Larraulgo Udalari eskaera egin beharko diola, ondoren, Larraulgo Udalak dagozkion pausoak emango ditu aipaturiko akordioa berrikusteko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Katilutxulo Elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA


SOROZELAI 43 ESKUINEKO ETXEBIZITZAREN FATXADA TXUKUNDU ETA KANPOKO TXIMINIA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.U.E.

Ikusirik J.U.E. andreak eginiko eskaera, non Sorozelai 43 eskuineko etxebizitzaren fatxada txukuntzeko eta kanpoko tximinia konpontzeko obra baimena eskaera egiten duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.U.E. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Sorozelai 43 eskuineko etxebizitzaren fatxada txukuntzeko eta kanpoko tximinia konpontzeko obra baimena ematea, betiere kontutan izan beharko du, lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko direla.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZFE	2.082,86
BERRI LANTEGIA	150,00
EBA ERKIZIA BRION	311,22
KEY-LAN	96,80
GARAJE EKIN	57,60
AITZOL EUSKALTEGIA	56,84
GOIKOETXEA ALBISU	223,58
ORSA	1.750,14
OCA ICP	179,69
ULAHI	572,05
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	156,82
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	72,44
GAS NATURAL FENOSA	172,72
MOVISTAR	18,29
MOVISTAR	100,37
MOVISTAR	80,65
MOVISTAR	16,91
MOVISTAR	133,53

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.232,51** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

10.1.MURGIL LARRAULGO GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Murgil Larraulgo Guraso Elkarteak eginiko eskaeran dioena:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“Larraulgo eskolako baratza proiektua duela lau urte martxan jarri zen, udalaren laguntzarekin urtero beraren mantenimendua posible egiten dugu, aurten ere egokitzapen eta hobetze lanak egin ditugu (atearen konponketa, zutoinen ordezkaketa eta erabilpena hobetzeko materialen osaketa), hau dela eta gutxieneko behar batzuk ikusi ditugu bere iraupen zuzena ziurtatzeko:

- *Udalak proposaturiko baratzeko ur horniketa, hau da haurreskolako komunitatik mangera eranstea, gabezi asko dituen sistema da, tomaren enpalmeak isuriak ditu, komuna inundatzen da eta haurreskola zikintzen da; mangera kanpoan eguzkitan egoteagatik gogortu egin da eta ezinezkoa egiten da eskola eta haurreskola ordutegi bateratuen aldetik baratzean landatzen diren landareen ureztatze egokia eta beraz proiektuaren bizi iraupen garantiak ematea. Hau dela eta zera eskatzen dugu:*
- ***Udalak ur toma egokia pasatzea baratza bertaraino, eta lekua bertan pasoko giltza batekin ureztatze egokia bideratuko duen puntua ezartzea.***

Guraso elkartearen aldetik dagokion inbertsioak egin direla kontutan hartuta eta proiektua ikasturteari erabat mugatua dagoela ikusirik, udalak eskaera honi ahalik eta azkarren aurre egingo diola espero dugu.

Aldez aurretik eskerrak emanez, agur bat,”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Murgil Larraulgo Guraso Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Udalak ur toma egokia pasako du baratza bertaraino, eta lekuan bertan pasoko giltza batekin ureztatze egokia bideratuko duen puntua ezarriko du.


BIGARRENA: Erabaki honen berri Murgil Larraulgo Guraso Elkarteari ematea.

10.2.ZAHARKITUTA GELDITU DEN HERRI OSTATUKO SUKALDEAREN ZOZKETA.

Ikusirik Larraulgo Udalak erabaki zuela Herri Ostatuko sukaldea aldatzea, zaharkituta gelditu zenez.

Ikusirik Larraulgo Udalak zaharkituta gelditutako Herri Ostatuko sukaldea herritarrei eskaintzeko, bando bat kaleratu zuela, apirilaren 30erarte epea utzi zuelarik interesatuek euren izenak Udaletxean emateko.

Ikusirik aipaturiko epean 5 interesatuek eman zutela euren izenak Udaletxean, honen esleipena zozketa bidez egitea erabakitzen delarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Arratsaldeko 20.00 orduak direnean zaharkituta gelditu den herri ostatuan zegoen sukaldearen zozketa egiten da, ondoren gelditzen delarik emaitza.

- 1.I.E.
- 2.K.J.
- 3.B.V.
- 4.A.A.
- 5.J.M.I.

Beraz, zozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.E. jaunari esleitzea zaharkituta gelditu den herri ostatuan zegoen sukaldea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdun guztiei ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**


Ondoren J.M.I. jaunak hitza eskatzen du, ondorengoaren berri emateko:

“Katillu-Txulo: kultur elkarte eta Zerbitzu publikoa

Krisi egoeran ere zerbitzuen publikotasuna ozen aldarrikatzen den garaiotan, Larraulen bestelako diskurtso bat ere nagusitzen ari da. Zerbitzu publikoa, definizioz, baliabide publikoei ematen den zerbitzua da, suposatzekoa denez, herritar guztientzat baldintza eskuragarrietan ematen dena. Izan liteke hezkuntza, osasuna edo kultura.

Larraulen 12 urte daramatza Katillu-Txulo kultur elkarteak. Katillu-Txulo lokal publikoan dago, Udaletxeko lokalean, eta, datuen arabera, hasierako diru ekarpenaren %80 inguru ere publiko izan zen (Udalarena gehiena 45.000€, hitzarmenez lotua, eta Europako laguntzena bestea 24.000€). Bazkideok 18.000€, % 20 jarri genuen.

Lokal publiko batean, eta ekarpen proportzioak horiek izanik, ez dirudi oso justua denik herritarrek zerbitzu hori baliatzeko 600 euroko sarrera ordaindu behar izatea. Eta ez hori bakarrik, helburuak ere zerbaitetarako daude: ikusteko dago, sarrera baldintza horietan herriko kultur elkarte batek bete ote litzakeen herri-zerbitzu baten jatorrizko helburuak. Gaur egunean, Katillu-Txulok klub pribatutik gehiago du, herriko kultur elkartetik baino, eta horren adibide da bazkide egiteko baldintzak ere aldatu izana, Udalak bere garaian jarritako irizpideak aintzat hartu gabe. Era berean, esan liteke Larraulgo gaztedi osoa ere urteetarako Elkartetik kanpora egotera kondenatua dagoela, elkarteko sarrera eta erabilera baldintzak orain bezala jarraitzen badute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Bestalde, gaur egunean, Kultur Elkarte horretako giltza duten erdiak baizik ez du botorik elkarteko batzarrean, bazkide laguntzaile baino ez direlako. Horretan ere gutxi du Katillu-Txulok zerbitzu publikotik.

Horretaz gain, egoera honetan Katillu-Txulo elkartearen bideragarritasuna ere ikusteko dago, bere garaian diru publikotik jarritako instalakuntzak berritzea tokatzen denean.

Larraulgo herritar gisa, Udalbatzari zera eskatzen diot:

Katillu-Txulo kultur elkartearen zerbitzu publiko izaerari defenditzeko eta benetan herri-zerbitzu izaera hori izan dezan neurriko sarrera baldintzak finkatzeko, Larraulgo herritar guztiek zerbitzu horretarako sarbidea eta boto eskubidea izan ditzaten. Nire ustez, oraingo 600 eurotako sarrera planteamendua erabat aldatu behar da, eta 100-150 eurotan utzi. Aurreko urteetan sarrera gehiago ordaindu izan duten bazkideekin konponbideren batera iristeko formulak ere aurkitu litezke.

Bestalde, proposatzen dut 16 urtetik gorako gazteentzat bazkideztza figura berezi bat sortzea, tutoretza sistema edo beste moduren baten bidez, gaztediak zerbitzu hori baliatzeko aukera izan dezan.

Azkenik, esan behar dut hemen proposatzen ditudanak aurrez Katillu-Txulo elkarteko batzarretan ere proposatu izan ditudala, eta idatziz ere bai, eranskinean ikusten den bezala.

J. M. I.”

Batzarkideak, J.M.I. jaunak aurkeztutako idatziaren berri hartzen dute.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA